

BERMEO / Ipuinen munduan murgilduko dira tailer bati esker

Alaitz Muro irakasle lanetan ariko du zapatu goizetan herrian sortu berri duen ipuin kontaketa tailerrean

Gotzone Bilbao

Alaitz Muro ipuin kontalari durangarrak, Udalaren laguntzagaz, ipuin kontaketa tailerra emango du Bermeon dohainik. Ikastaroa zapatu goizetan izango da, 10:30etik 12:30era. Gaur bertan hasiko da eta abenduaren 2ra arte lau zapatutan jarraian izango da Joxe Miel Barandiaran Udal Liburutegian.

Tailerrean izena emateko epea azaroaren 7an amaitu zen, baina, gutxienez zazpi ikasle izango dira Murok antolatutako tailerrean.

Sarritan egiten dira Jose Miel Barandiaran Udal Liburutegian ipuin kontaketa saioak barikuetan, iluntze partean. Saio horietara hizlari moduan etortzen direnak oro har kanpokoak izaten dira, herrian momentu honetan ez baitago ipuin kontalaririk. Bizkaia mailan Alaitz Muro bakarrenetarikoa izango da, gero Gipuzkoa mailan badira bakar batzuk.

Alaitz Muro bera ere etorri da inoiz Bermeora ipuin kontalari moduan. Bere esanetan, ipuin kontalari gisa etorri naizenetan oso harrera ona izan dut bertan. Batzutan jende asko egon da eta beste batzuetan ondo.

Tailerraren bigarren atala

Kontaketa tailerra egiten den bigarren aldia da. Murok berak adierazitakoaren arabera, duela urte bat edo bi tailer honen lehenengo atala egin nuen. Izan zuen arrakasta ikusita eta parte hartu zuen jendea ere gustura aritu zenez, bigarren atala egitea proposatu nuen eta onartu egin didate.

Era eta gustu guztietako ipuinak landuko dituzte tailerrean. Murok esan duenez, garrantzitsuena pertsona bakoitzak ipuina kontatzean egiten duenaz gozatzea da, horretarako bakoitzak bilatu behar du bere gustukoa zein den.

Bigarren saio honetan jada aurrekoan egin zutena sakonduko dute batetik, baina izango dira nobedadeak ere.

Aurrekoan, ikastaroaren azken egunean parte-hartzaileak Muroren laguntzarekin ipuinak kontatu zizkieten Bermeoko umeei. Oraingoan, aldiz, saioa ez da irekia izango. Parte-hartzaileek eurak aukeratutako ume ezagunen aurrean ariko dira kontaketan.